

# Euskaldunak sortzaileak gara?

**Gotzon Barandiaran**

*Euskal idazlea*

gotzonba@armiarma.com

Sarrera-data: 2012-05-20 | Onartze-data: 2012-06-20

**Laburpena.** Gotzon Barandiaranek euskaldunok euskal kultura kontsumitu behar ote dugunaren inguruan eta euskal sortzaileen eginkizunaren bueltan hartzen du bidea artikulu honetan. “Zaletasuna berezkoak baino eragindakoak direla onartzen badugu kulturarekiko zaletasuna eragin egin behar dela ondorioztatuko dugu”. Beraz, ezagutza eta kontsumoa euskaldunon artean sustatu behar dela aldarrikatu nahi du atzerrian prestigiatzeko politika estrategikoak diseinatu aurretik. Bestalde, arreta berezia jartzen du gure artean bizi diren erdaldunek ezagutu gaitzaten egin beharreko ahaleginez, euskarazko kulturari buruzko informaziorik jaso dezaten. Amaitzeko, euskal kulturarentzat auzolanak duen garrantzia eta auzolan horren inguruko dekalogoia proposatzen du Gotzon Barandiaranek. • **Hitz-gakoak:** *Euskal kultura, kultura transmisioa, hedabideak, kultura-kontsumoa, auzolana.*

**Abstract. Are we Basques creative?.** In this paper, Gotzon Barandiaran explores whether or not we Basques should consume Basque culture, and the task of Basque creators. “If we accept that enthusiasm is influenced rather than intrinsic, we have to conclude that it is necessary to influence enthusiasm with respect to the culture.” So he wants to declare that knowledge and consumption among Basques has to be promoted before designing strategic policies to give it prestige abroad. On the other hand, he devotes special attention to the efforts that need to be made so that the non-Basque speakers living among us can get to know us, and so that they can receive information on culture in the Basque language. In conclusion, Gotzon Barandiaran points to the importance of community work for Basque culture and proposes a decalogue on this community work. • **Key words:** *Basque culture, culture transmission, the media, culture consumption, community work.*

2011ko Durangoko Azokaren bezperatan ozen aldarrikatu genuen: Sorkuntza ez dago krisian. Baieztapena udagoien-negurako eskaintza aztertuta zabaldu genuen, zenbat diska liburu antzezlan filme labur zein luze zelango aniztasunetik proposatu zitzaizkigun aintzat hartuta. Landako barruko erakusmahaietan, Ahotsenean, Irudienean, Skenatokian, Plateruenan, gaztetxean zein kalean ehundaka euskal kultur proposamen. Ez, sorkuntza ez dago krisian.

Eta harrigarria da berez, miraria, puzten hasita, zeren, zerk bultzatzen du euskalduna sortzaile izatera sormenerako gaitasuna lehen hezkuntzan bat-batean erauzten badigute?

Tarte laburregia dugu arrazoiak zerrendatzeko baina uste dugu kultur gintzan ari garenek patxadaz hausnartzeko afera dela. Zeren, azterketa egituraturik egin barik, ezagutzen dugunetik bildutako ausardiaz aldarrikatuko dugu sortzailea dela kultur hartzailerik behinena eta guri dagokigunez, gehienetan antolatzaile/eragile izan ohi da. Ez dugu uste asko okertuko ginatekeenik, balizko ikerketa kuantitatiboaren emaitzetako batek, euskal kultur adierazpide guztietan hartzaileen kopururik handiena sortzaileok osatzen dugula adieraziko baligu. Zer esan gura dugu, endogamia hori elikatu behar dugula? Baiezko erantzunari oratuko diogu honakoa proposatzeko: Har dezagun lehentasuntzat sorkuntza sustatzea gure kulturaren geroa bermatzeko. Azter dezagun kultur gintzan ari garelarik, sorkuntza sustatzea gogoan dugu kultura proposatzen dugunean?

Barkatu, aldean daroagun laino beltza aurkeztea ahantzi dugu: euskal kulturaren transmisioa bermatuta dugu?

## **EUSKALDUNOK BADUGU EUSKAL KULTURA KONTSUMITZEKO BEHARRIK? EUSKALDUNOK BADUGU EUSKAL SORTZAILEEN BERRIRIK?**

**I**  
Jendartea osatzen dugun pertsona guztiak ez gara kultura kontsumitzaile aktiboak, bai oster, pasiboak. Euskaldunok kultura espainol, frantses eta anglosaxoiari buruzko edukiak gura barik jasotzen ditugu egunero. Etenbako xurgatze inkonzientea da. Erreferentziaz elikatzen gaituen heinean imaginarioa eraikitzen digu: diskurtsoa eraikitzen diguten eran janzkera, jakera, berbakera, ikuskera, azken batean, izakera bideratzen digute. Eta hori guztiori espainolez, frantsesez edota ingelesez. Aldiz, iruditzen zaigu euskal kulturari buruzko informazioa bilatu egin behar dugula euskaldunok, bila joan behar dugula. Esan berri dugu, euskalduna den oro, munduko herri guztietan gertatzen den legez, ez da kul-

---

**2011ko Durangoko Azokaren bezperatan ozen aldarrikatu genuen: Sorkuntza ez dago krisian. Baieztapena udagoien-negurako eskaintza aztertuta zabaldu genuen, zenbat diska liburu antzezlan filme labur zein luze zelango aniztasunetik proposatu zitzaizkigun aintzat hartuta. Landako barruko erakusmahaietan, Ahotsenean, Irudienean, Skenatokian, Plateruenan, gaztetxean zein kalean ehundaka euskal kultur proposamen. Ez, sorkuntza ez dago krisian.**

**Zaletasuna berezkoak baino eragindakoak direla onartzen badugu, kulturarekiko zaletasuna eragin egin behar dela ondorioztatuko dugu.**

**Euskaldunok auzo zein munduko kulturek euren adierazpideak zabaltzeko eta kontsumiarazteko dituzten bitartekoen mailakorik ez dugunez, hurbiltasuna dateke gakoetako bat.**

tura kontsumitzailea, ez bere ardurabakokeriagatik, baizik eta zaletasuna eretzeko ahaleginak ez direlako botere gunetik sortu, ez bada herrigintzan dihardutenengandik. Kultura kontsumitzailea ez den euskaldunak ez du informaziorik bilatzen eta bilatzen ez badu nekez jasoko du arestian aipatu kultura espainol, frantses zein anglosaxoiari buruz jasotzen duen beste eduki. Horregatik esan gura dugu euskaldunok ez ditugula gure sortzaileak ezagutzen. Ikaskide izan ziren lau laguneren artean hiruk kirol egunkari erdaldunak erosten dituzte, ez dute libururik irakurtzen, ez dira zinemara joaten, ez dute antzoki bat urteetan biziara, ez dakite diska berria atera duten talde hasiberrien izen bakar bat ere, arte plastikoak direnik ahantzi dute. Ez dute kultura kontsumitzeko beharrik, hain gutxi euskal kulturarik. Baina entzuna dute *El código da Vinci* eta *Harry Potter* deritzoten liburuak daudena, Shakira izeneko kantariaren berbak ozen errepikatzen dituzte edari goxoen berotan. Zergatik? Behar izanik gabe ere, gura barik bada ere, informazio hori jaso egiten dutelako, eten barik, bonbardeo eternal baten gisa. Euskal kulturari buruzkoekin ez da antzekorik gertatzen, ezta hurrik eman ere.

Zaletasuna berezkoak baino eragindakoak direla onartzen badugu, kulturarekiko zaletasuna eragin egin behar dela ondorioztatuko dugu.

Harrokeria barik esango dugu egungo euskal sortzaileek proposatzen digutenaren kalitatea bizilagun ditugun kulturetako enaren bestekoa dela, gutxienez, askoz hobe askotan. Haatik, ez dugu lortzen euskaldunok horretaz jabetzerik.

## **ZEIN ITURRITATIK JASOTZEN DUGU EUSKALDUNOK EUSKAL KULTURAREN BERRI?**

**I** Euskaldunok auzo zein munduko kulturek euren adierazpideak zabaltzeko eta kontsumiarazteko dituzten bitartekoen mailakorik ez dugunez, hurbiltasuna dateke gakoetako bat. Egun, euskarazko herri aldizkari, irrati, telebista zein interneteko agerkarietan, euskal kulturari buruzko berriei protagonismo handiagoa eman dakieke, are gehiago lekuan lekuko kultur sorkuntzari. Horrek, agian, gureaz arduratzeko beharrezana sortaraziko die euskal kultura ez beste kulturez arduratzen diren agerkariei. Hedabide handien kamarak gureganantz enfokarazi behar genituzkeela uste dugu. Berbarako, telebista zabaltzeko aro analogikoaren desagerpenak atomizazioa ekar lezakeela uste dute adituek, hurrekoaz berri emateak garrantzia handia hartuko duela, gaikako telebista kateak nagusituko direla aurreikusten dute. Orokorkeriatik, efe agentzismotik ihes egiteko aukera ekar liezaguke euskaldunoi, berton ekoiztako berton

jasotzeko. Ekoizpen era digitalak merketzea dakar, merketzeak eskuera. Txikion besomotzaren neurrikoa, ziurrenik.

Gure usteen horixe izan liteke euskarazko kulturgintzarekin harremana dugun eragileon lehentasuneko bat: ahalik eta euskaldun gehienek gure sorkuntza kulturalaren berri jasotzea bila joan behar izan barik. Ezagutza eta kontsumoa, lehenik eta bat, euskaldunon artean sustatu behar dugulakoan gaude. Alferrik ibiliko gara gure kultura atzerrian prestigiatzeko politika estrategikoak diseinatzen, ezinbesteko ezaugarritzat euskara duen kulturaren balizko hartzaileek ezer jasotzen ez badute.

## ZELAN ELKARBIZI KULTURA ESPAINOL, FRANTSES ETA ANGLOSAXOIAREKIN?

I

Urteetan egonkortu den kezketako bat da gugaz bizi diren erdaldunek euskarazko kulturari buruz ezertxo ere jakin barik bizi direla. Bizilagun, auzokide ditugun erdaldunek ez gaituzte ezagutzen, ez dute euskarazko kultura ezagutzeko beharrik, ez dute euskarazko kulturari buruzko informaziorik jasotzen. Zenbateko ahalegina egin behar dugu ezagutu gaitzaten? Ezinbestekoa da gure berri izatea?

Bada, gure usteen, bai. Gure usteen bizilagun ditugun erdaldunek jakin beharko lukete bizi diren inguruan badela bizi diren inguruko jatorrizko hizkuntzan gauzatzen den kultura, jakin beharko lukete tutik ulertu ez arren horrenbeste miresten eta kontsumitzen dituzten kultura adierazpideen kalitateko bereko proposamenak daudena euskaraz. Euskarazko kulturari folklorismoaren, exotismoaren eta etnokeriaren tatuai azaletik erauzteko modua izan daiteke. Euskaraz funkya, jazz, popa, rapa edo bossa-nova entzun daitezke, Indian kokatutako eleberririk irakurri, break dance saioak ikusi, Tadeusz Kantorren esanetan oinarritutako antzerkia gozatu, animaziozko laburmetraiak ez ikusi... Munduko kulturaren nagusi diren irizpideak dira euskaraz sortzen ditugun asko. Beraz, zergatik ez da erdaldun batentzat erakargarria izango euskarazko kultur adierazpide bat antzeko kultur adierazpide arrotza erakargarria bada?

Ezagutzen ez dena, nekez hautatu daitekeelako, ezagutzen ez dena, nekez gozatu daitekeelako, ezagutzen ez dena, nekez maita daitekeelako.

Erdarazko kultur adierazpenak nagusi diren eremuetan, adierazpideon antolatzaileekin harremanetan jarri eta euskarazko kultura adierazpideei zein leku eman eztabaidatu genezakeela uste dugu, beti ere, antzeko adierazpideak izatea hobetsiz.

---

**Euskarazko kulturgintzarekin harremana dugun eragileon lehentasuneko bat: ahalik eta euskaldun gehienek gure sorkuntza kulturalaren berri jasotzea bila joan behar izan barik. Ezagutza eta kontsumoa, lehenik eta bat, euskaldunon artean sustatu behar dugulakoan gaude.**

**Urteetan  
egonkortu den  
kezketako bat da  
gugaz bizi diren  
erdaldunek  
euskarazko  
kulturari buruz  
ezertxo ere jakin  
barik bizi direla.  
Bizilagun,  
auzokide ditugun  
erdaldunek ez  
gaituzte  
ezagutzen, ez  
dute euskarazko  
kultura  
ezagutzeko  
beharririk, ez dute  
euskarazko  
kulturari  
buruzko  
informaziorik  
jasotzen.  
Zenbateko  
ahalegina egin  
behar dugu  
ezagutu  
gaitzaten?**

Are gehiago, zergatik ez gara euskaldunok erdarazko adierazpide arrakastatsuez baliatuko? Bilbora datorren kantari oso ezagunagaz batera kantari euskalduna aritzeak kalterik egiten digu?

## **EUSKARAZKO KULTURA NORI ESKAINI**

**I** Barne kontsumorako eskaintza: Identifikatuta dagoen euskaldun multzoa, euskarazko kultura kontsumitzeko ohitura duena, euskara elkar-teraren ingurukoa, euskalduntze prozesuan dagoen multzoa. Euskarazko kultura egunean bizi dutenak dira, euskarazko kulturaren adierazpideak bilatzen dituztenak, gozatzen dutenak, aisia horretan ematen dutenak... eta era berean kritiko bezain exigenteenak izan daitezkeenak dira, euskarazko kulturgintza jorratu gura duenarentzat ezinbestekoak. Egoera soziolinguistikoa dena delakoa dela, ohikoak diren hartzaileon iritzia etenbarik jasotzeko bideak jarri beharko lituzkeela uste dugu, berriz diogu, euskararen biziraupenerako ezinbestekoak direlako.

Euskarazko kultura kontsumitzeko ohitura ez duten euskaldunak, gutxienez, hartzaile/kontsumitzaile pasibo bihurtu behar ditugu.

Bizilagun ditugun erdaldunei euskarazko kulturaren eta euren zein arrotzak dituzten ostantzeko kulturen arteko parekotasunak eta berezitasunak ezagutarazi behar dizkiegu.

Horretarako, bide laburrenetakoa elkarlananera/ auzolanarena/ sinergiena dateke.

## **ESKAINTZAREN IZAERA**

**I** Kalitatezkoa

Bizilagun ditugun kulturen hedatzeko bitartekoei aurre egiteko hurbiltasuna aipatu dugu lehenago. Ohiko hartzaileak mantentzeko eta berririk erakartzeko beste berme bat kalitatea dateke. Baina zeri deritzogu kalitatezko eskaintza?

Dauden erdarazko eskaintzen kopurua ikusita, ezeri muzin egiteko moduan gaude?

Erdarazko kulturetatik kopiatutakoa baztertu egingo dugu?

Arrakasta izango da gure helburua? Zein da arrakastaren neurgailua?

Hartzaile kopurua

Proposamenaren kalitatea

Antolatzailearen poza

Sortzailearen poza

Hartzailearen poza

Gure ustean, galdera horien guztien erantzuna zehaztea eskaintza horretan parte hartzen duten guztiei dagokie. Asko lagun dezake:

- Antolatzaileek gogoia, ilusioa, grina izateak.
- Ohiko zein balizko hartzaileengana denboraz eta ahalik eta xehe-tasun handienaz iristeak.
- Gutxieneko azpiegitura bermatzea: Sortzailearentzat zein hartzailearentzat (erosoa, garbia, epela, neurrikoa...)
- Iraunkorra izatea, azturak, ohiturak sortzeak.

### **Auzolana**

Euskarazko kultura sustatzean ohiko zein balizko hartzaileek eskaintzari buruzko informazio nahikoa izango dutela eta kontsumitzeko hautua egingo dutela ziurtatzeko, lan egiteko modua auzolanean oinarritu behar dugulakoan gaude.

### **Antolatzailea- Sortzailea- Hartzailea**

Antolatzaileak: eskaini beharrekoari buruzko ezagupena izan behar du, sortzaileagaz harremanetan jarri, zer behar duen jakin, herriko ezaugarrien berri eman, ohiko zein balizko hartzaileari sasoiz helarazi behar die informazioa, hartzaileari iritzia emateko bideak zabal ditzake (urteko plangintzak egiteko batzarretarako deiak luzatu, web/blogak, buzoiak...).

Sortzaileak: antolatzailearen baldintzak zein bitartekoak ezagutu behar ditu, beragaz berba egin, zer eskaini gura duen azaldu, balizko hartzaileez galdetu, eskainitakoaz iritzia batu...

Hartzaileak: sasoiz eta ahalik eta zehatzen jaso behar du eskeintzaren berri.

Herriko gainontzeko era guztietako elkarte eta eragileak

Urteko zein urteetako eskaintza aurreikuskerakoan, herriko gainontzeko eragileengana joan eta aurreikuspenak partekatu egin beharko genituzkeela uste dugu, batez ere kultur elkarterik badago, nahiz eta erdarazko kultura bultzatzen duena izan. Zergatik ez gara joango *Centro Extremeñora* nork bere asmoen berri elkarri eman eta elkarlanean ezer egin daitekeen jakitera baino ez bada?

Euskarazko kulturaren ezagutzan hezi beharrekoak: irakasleak, ikasleak, elkarteak, guraso elkarteak

Gerora euskarazko kulturaren sortzaile eta hartzaile izango direnengana joan behar dugu. Hezitzen dituzten irakasle eta gurasoekin, heziketa prozesuan euskarazko kulturaren garrantziaz berba egin genezake, nork zer bitarteko sortu lezakeen adostu...

---

**Barne kontsumorako eskaintza: Identifikatuta dagoen euskaldun multzoa, euskarazko kultura kontsumitzeko ohitura duena, euskara elkartearen ingurukoa, euskalduntze prozesuan dagoen multzoa. Euskarazko kultura egunean bizi dutenak dira, euskarazko kulturaren adierazpideak bilatzen dituztenak, gozatzen dutenak, aisia horretan ematen dutenak... eta era berean kritiko bezain exigenteenak izan daitezkeenak dira, euskarazko kulturgintza jorratu gura duenarentzat ezinbestekoak.**

---

**Bizilagun  
ditugun kulturen  
hedatzeko  
bitartekoei aurre  
egiteko  
hurbiltasuna  
aipatu dugu  
lehenago. Ohiko  
hartzaileak  
mantentzeko eta  
berriak  
erakartzeko beste  
berme bat  
kalitatea dateke.  
Baina zeri  
deritzogu  
kalitatezko  
eskaintza?**

Instituzioak

Udalerriko zein udalerritik goragoko instituzioei euskarazko kultura sustatzeko dituzten asmoetan euskara elkarteen ezinbestekotasuna ikus-tarazi behar diegu.

Eragile pribatuak: enpresak, fundazioak...

Instituzioen erantzun eskasaren aurrean euskarazko kultur eskain-tzarako finantziazio bide serioztat hartzen hasi behar ditugu.

## ZER DAKARKE AUZOLANAK?

I

• Euskarazko kulturaren eragileak (sortzaileak eta antolatzaileak) eta har-tzaileak identifikatzea.

- Elkar ezagutzea: Kulturaren zein eremutan eta zein baldintzatan lan egiten dugun elkarri azaltzea eta zein helburu ditugun jakinaraztea.
- Euskarazko kulturaren egoerari buruzko irakurketak trukatzeta.
- Herri mugimenduak, erakunde publikoak (politikariak) eta indus-trialki jarduten dutenak zilegitasun maila berean ezartzea.
- Erabakitze guneak zein izan behar diren adostea. Ondorioz, era-bakitze guneetan parte hartzea handitzea.
- Norberaren lehentasunak gainontzekoen lehentasunekin parekatzea.
- Euskal kulturarentzat estrategikoa zer den adostasunez erabakitzea.
- Kultura politika eztabaidatu, adostu, onartu eta betearaztea.
- Unean uneko agintaritzak politikoak kateatuko ez duen sujeto po-litikoak bihurtzea.

Gure ustez, auzolana ulertzeko era honek herrietarako, hirietarako, herrialdeetarako zein Euskal Herri osorako balio du.

Berdin bildu beharko dugu sortzaileok, antolatzaileok eta hartzaileok Agurainen, Etxarrin, Heletan edo Bilbon.

2010eko azaroaren 24 eta 25ean, Kontseiluak "Euskararen unibertsoak pauso bat haratago" jardunaldiak antolatu zituen Iruñeako Planetariu-mean. Lehen egunean euskararen egungo egoeraren diagnostikoa aur-keztu zelarik, zenbait ondorio sano argigarri mahai-gaineratu zituen:

- Hizkuntz-politikak: Azken 25 urteotan Euskal Herri osoko insti-tuzio publikoetatik bideratutako hizkuntza-politikek bere horretan badiraute, euskara ez da egundo normalizatuko.
- Sektoreen azterketa: Hezkuntzaren, Helduen euskalduntze-alfa-betaztearen, lan-munduaren, hedabideen eta euskara elkarteen bal-dintzak aztertuta: Ez dago aldeko baldintza politikorik, beraz ez

dago aldeko baldintza juridikorik ezta ekonomikorik ere. Ostera, baldintza sozialak oso aldekoak dira. Euskarazko kulturgintzari buruzko azterketarik aurkeztu ez bazen ere, ondorioak berdintsuak dirrelakoan gaude. Ez dago euskarazko kulturgintzaren aldeko baldintza politikorik, ez juridikorik ez ekonomikorik, baina euskal herritarren gehiengoak euskarazko kulturaren aldeko jarrera du.

Halandaze, zelan lortu genezake baldintza politiko, ekonomiko eta juridikoak aldekoak izatea? Babes soziala baldintza politiko bihurtuta. Eta hori lortzeko modu bakarra auzolana dela deritzogu. Hizkuntza-politikak eta ondorioz kultura-politikak, euskalgintzak eta euskal kulturgintzan ari garenok eztabaidatu, adostu eta gauzatu behar ditugu. Ezin dugu kultura edota hizkuntza-politika lau urterik lau urtera instituzio publikoetan agintean daudenen gidaritzapean utzi. Atzo Kulturaren Euskal Plana zena gaur Kulturen Aldeko Herritartasun Kontratua da eta bihar Planaren Aldeko Herritartasun Kultura izango da edo auskalo beste zer. Bitartean azken 40 urteotan euskalgintzan eta euskarazko kulturgintzan lanean ari garen herri mugimenduok zein norbanakook ez dugu ezer erabakitzeke botere gunerik irabazi. Euskal herritarrak gure lanaren aldekoak badira ere, euskarari zein euskarazko kulturari baldintza politiko ekonomiko juridikorik bermatzen ez diotenek antolatutako foroetara joaten gara ekarpenak egitera.

Lau urtetik lau urtera instituzio publikoetan agintean daudenek proposatzen dituzten foroetan parte hartzeari utzi egin behar diogu. Foro horietako kide izanik, hizkuntza-politika zein kultura-politika gure esku ez daudela onartzen dugu, inoren gidaritzara onartzen dugu.

Foro horien bultzatzaile diren instituzioetako agintariek eurek airtortzen badigute gure ekarpenak euren nahierara erabiliko dituztela, zergatik hartzen dugu parte morroi papera inposatzen diguten antze-lanetan? Ez dezagun instituzio publikoen menpekoak diren Euskararen Aholku Batzorde eta enparauetan parte hartu, sortu ditzagun gure Euskararen Aholku batzordeak eta instituzio publikoek parte har dezatela gugaz batera, auzolanean. Non dago euskararen eta euskarazko kulturaren aldeko masa kritikoa ez bada euskalgintzan eta euskal kulturgintzan? Non daude euskararen eta euskarazko kulturaren aldeko militanteak ez bada euskalgintzan? Non biltzen gara euskara erabili eta euskarazko kultura kontsumitzen dugunok ez bada euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren inguruan?

Euskal Herriko instituzio publikoetan agintean daudenezat euskara eta euskarazko kultura ez dira lehentasunezko, euskalduntzea ez dago

---

**Euskarazko  
kultura  
sustatzean ohiko  
zein balizko  
hartzaileek  
eskeintzari  
buruzko  
informazio  
nahikoa izango  
dutela eta  
kontsumitzeko  
hautua egingo  
dutela  
ziurtatzeko, lan  
egiteko modua  
auzolanean  
oinarritu behar  
dugulakoan  
gaude.**



**Lau urtetik lau urtera instituzio publikoetan agintean daudenek proposatzen dituzten foroetan parte hartzeari utzi egin behar diogu. Foro horietako kide izanik, hizkuntza-politika zein kultura-politika gure esku ez daudela onartzen dugu, inoren gidaritza onartzen dugu.**

eragile horien helburuetan. Zergatik onartzen dugu euren gidaritza? Zergatik uzten dugu hizkuntza eta kultura politika euren esku? Zerk eragozten digu euskalgintzako kideoi presio sozio-politikoa nahikoa egingo duen subjektu politiko bilakatzea?

Euskalgintza eta euskal kulturagintza osotzen dugunok norberaren proiektua estrategikoena dela pentsatzeari utzi behar diogu eta euskararentzat eta euskarazko kulturarentzat estrategikoa zer den adostu behar dugu, auzolanean. Euskalgintza eta euskal kulturagintza osotzen dugunok, nor bere aldetik, gogoeta sasoian gaude. Berandu orduko bildu, gogoeta horiek trukatu, eztabaidatu eta ebatziak hartzen has gaitzke. Euskalgintza eta euskal kulturagintza osotzen dugunok euskararen eta euskarazko kulturaren aldeko subjektu politiko bilakatu gaitzke, instituzio publikoetan emango diren agente aldaketak aldaketa, dagoena dagoela, datorrena datorrela, hizkuntza eta kultura politika geuk gidatuko dugula ulertarazi geniezaieke euskal herritarrei eta klase politikoari. Sinets dezagun horretarako gai garena, badugula nahikoa indar, auzolanean edozertarako gai garela, herritarrak alde ditugulako. Ostantzean, orain arte legez, erresistentzia lanetan iraungo dugu, nekaraziko gaituzte eta nekatuko gara. Idazleak frogatu ukaezinak bildu ditu: *“Euskararen iraupena erresistentzia luze eta miresgarri baten ondorioa izan da eta izango da. Gure klase politiko nagusiak albora bota du euskara, ez zaio interesatzen kultura egiteko eta unibertsaltasuna hedatzeko tresna bezala. Euskararen historia marjinazio baten historia da. Eta politikoki eragin beharko dute euskaldunek, nik ez dakit nola baina, marjinazio horretatik ateratzeko. Euskarak ez du aurrera egingo munduko idazlerik onenak, munduko kantaririk onenak eta munduko bertsolaririk onenak edukita.”*

Euskalgintzan eta euskal kulturagintzan hamarkadetan egin dugun lan eskergak ematen digun zilegitasuna eta bermea aldarrikatu behar ditugu euskal herritarren gehiengoa jabetu dadin geu garela Euskal Herrian hizkuntza-politika zein kultura-politika gidatu behar dugunak.

## AUZOLANAREN DEKALOGOA

I

1. Auzolana gizarte ikuspegi bat da; ez da slogan bat.
2. Auzolana herrigintza-helburuekin lotutako elkarlana da; ez edozein elkarlan mota.
3. Auzolana herrigintzarako antolaturiko pertsonak dira; helburu zehatzak bezain inportantea dira jendea eta funtzio soziala.
4. Auzolankide dira hasieratik buru-belarri dabilena zein ekintza jakin eta xume batean parte hartzen duena.

5. Auzolanak auzokoen lanerako baldintzak ezagutzera garamatza, eta beste kontzientzia maila bat ematen digu gainerakoen lanaz; abe-rastu egiten gaitu.
6. Auzolana talde-lana da; batzuetan eragiletza izan daitekeen moduan, beste batzuetan laguntzaile izatea izango da.
7. Auzolana horizontala da; pertsonatik pertsonara, talde edo elkar-teen baitan zein herri-mugimendu, instituzio eta enpresa arloko eragileen artean.
8. Auzolana erabakiak adostea eta zereginak banatzea da, bakoitzari dagokion esparruaren arabera.
9. Auzolana prozesu bat eta ikasbide bat da; jarrera irekia eskatzen du helburuei eta emaitzei begira.
10. Auzolanak lana egitea esan nahi du, auzokoari begira geratu bari-rik; eta bizipozez lan egitea.

## AUZOLANA OTE DIRA?

### **I** **Literatura Eskola**

LITERATURA ESKOLA 2003ko urrian jarri zuen abian Larrabetzuko bihotz bakartien klubak. Orduan irakurtzen ikasi gura genuela aldarriku genuen, jakin gura dugula nork noiz non zer zergatik eta zertarako idatzi zuen. Orduan best-sellerrek ez gintuztela asetzen oihukatu genuen, munduko literatura argitaletxe boteretsuenen ilunpeetatik argitara ekarri behar genuela, ez dugula onartuko zer irakurri behar dugun esango digun ebazpen ofizialik. Horri, besteak beste, generitzon irakurlearen parte hartze aktiboa.

Larrabetzun hasi ginen biltzen, hilean behin, larunbat goizez, 30-35 literaturazale. Gaiak aukeratzeko irizpideak denon artean zehaztu ginituen, aho batez: Euskal literatura munduan eta mundua euskal literaturan; Aitzol, Orixe, Lizardi, Lauaxeta, Vladimir Maiakovski eta Aime Cesaire, euskarazko literatura aldizkariak, literatura eta kazetaritza, euskal antzerkia, Gabriel Aresti, Silvia Plath, Joseba Sarrionandia, Penando Amezketarra eta Metxa, estatu batuetako literatura beltza, Bernardo Atxaga...

Ikasturtez ikasturte aurrekoetan ikasitakoa osatzen ahalegintzen gara. Baina ez dira gaiak osatu gura ditugun bakarrak, ikuspegiak ere osatu gura ditugu eta 2006a arte Larrabetzu bilgune izan zuen Eskola, Euskal Herri osora zabaltzea oneritzi genuen. Ordutik Hernanin, Oretan, Gasteizen, Iruñean, Azpeitian, Senperen, Lazkaon, Saran, Baionan, Aiherran, Arrasaten, Durangon, Donibane Lohitzunen edota Bilbon bildu gara.

---

***Euskalgintza eta euskal kulturagintza osotzen dugunok euskararen eta euskarazko kulturaren aldeko subjektu politiko bilakatu gaitzke, instituzio publikoetan emango diren aginte aldaketak aldaketa, dagoena dagoela, datorrena datorrela, hizkuntza eta kultura politika geuk gidatuko dugula ulertarazi geniezaieke euskal herritarrei eta klase politikoari.***

**Larrabetzun hasi  
ginen biltzen,  
hilean behin,  
larunbat goizez,  
30-35  
literaturazale.  
Gaiak  
aukeratzeko  
irizpideak denon  
artean zehaztu  
genituen, aho  
batez: Euskal  
literatura  
munduan eta  
mundua euskal  
literaturan.**

Euskal Herrian literaturarekiko zaletasuna kutsarazten ahalegintzen garen batzuk bildu gara, batzuk, gu. 2007an prentsaurrekoa eman genuen Donostian, literaturaren ustezko bozgorailuan. Kazetari bakarra etorri zen. Gure ekimenak ez dio, antza, euskal literaturari ekarpenik egiten. Urte osoko matrikula 20 eurokoa baino ez delako izango da? Agian 1.000 eurora igo beharko genuke prestigioa izan dezan? 2003ko abenduan 10. trukeurtea hasiko du Literatura Eskolak, oraindik ere literaturazale edota euskarazko kulturazale askorentzat erabat ezezaguna denak.

### **Literaturia**

*Literaturia euskarazko literaturaren plaza* Literatura Eskola eta Larrabetzuko herriaren ekimenez sortu zen 2009an, Euskal Herri osoko idazle, argitaletxe eta irakurleekin elkarlanean.

Literaturari loturiko plazera bermatzeko ekitaldiak dira LITERATURIAN proposatzen ditugunak. Literatura denborapasa hutserako ez dela sinesten dugulako Literaturia gogoetarako gune bilakatu asmo dugu. Horregatik antolatzen ditugu mahai-inguruak, eta horregatik egiten du Literatura Eskolak ikasturteko azken saioa egitarauaren barruan. Larrabetzun biltzen dira Euskal Herri osoko irakurle klubetako kideak, 111 akademiarekin elkarlanean, gogoetak, kezka eta bizipenak partekatze aldera. Irakurle taldeok aukeratzten dute zer hausnartu, zer galdetu elkarri. *Irakurzaletasunaren transmisioa: noiz eta nola?* edo *“Nork erakusten digu zer irakurri? Zeren arabera hautatzen ditugu liburua?”* hala-koak dituzte berba-gaiak.

Irakurle aktiboak dira hortaz Literaturian parte hartzen dutenak, liburuak gozamenez gain jakin-minez irakurtzen dituztenak. Irakurleen parte hartze aktiboa Literaturariaren oinarri filosofiko garrantzitsuenetakoa delakoan gaude.

### **Ahotsenea**

Euskarazko sortzaileen artean Durangoko Azokan betetzen duten lekuari buruz zenbait kezka zabaldu ziren duela zenbait urte. Kezka horiei irtenbidea bilatuz, lehen axioma argitu genuen; sortzaileon zeregina da Azokan sormenak izan behar duen lekua proposatzea. Lege hori onarturik, proposamena luzatu genien sortzaileei zein Durangoko Azoka antolatzen dutenei: Ahotsenea, sortzaileen gunea. Zertarako? Euskaraz sortzen duten musikari zein idazleei Durangoko Azokaren baitan euren urteko lanak entzule eta irakurleei bertatik bertara aurkezteko. Ahotsenea bi espaziotan banatzea bururatu zitzaigun. Batean Durangora hurbiltzen diren idazle eta musikariekin solasean aritzeko. Oraingoan, solasaldien

gidaritzea musikan zein literaturan gutxieneko ezagutza duten bi kazetarik egitea proposatu genuen. Bestean, ordu erdiko tartean, idazleek euren testuak oinarri dituzten irakur taldeei errezitaldiak egin ahal izango dituzte eta musikariek euren lanen laginak zuzenean jo.

Lehen urtetik, Ahotsenean gertatzen den guztia internet bidez zuzenean ikusentzuteari berebiziko garrantzia eman genion, Azokara hurbiltzeko aukera ez dutenek eta Euskal Herritik kanpo bizi diren euskaldunek Ahotseneak zabalik dirauen artean euskal sortzaileon jardunaren berri izateko aukera izango du.

Helburuak aipatzea merezi duelakoan, esan dezagun urteetan Azokara etortzeari utzi dioten zaleak berriro erakarri nahi ditugula eta, era berean, beste Aro bat sortu, hitzaren zentzu bietan.

Horretan ezinbestekoa da sortzaileon inplikazioa, gu geu baikara gure zaleei beste zerbait eskaini behar diegunak, liburuak eta diskoak sinatzeaz eta gure aurpegiak han edo hemen ikusteaz gainera. Harreman zuzena zor diegu, urtean behineko kontu errenditzea, igurtzia eta, zertan ez, aditasuna, guri zer esateko duten ere esan ahal diezaguten.

Azoka bera aberastu nahi dugu, horren gunea herrira zabalduz, eta erreferentzi puntu edo leku bat mapan —benetakoan eta birtualean— kokatuz.

Durangoko Azokan biltzen direnen artean badira euskaldunak eta baita erdaldunak ere; zuzeneko emanaldien bidez euskarazko sorkuntza, liburu zein disken portadaz barrurago ezagutu eta entzuteko aukera eman nahi diogu hurbiltzen den orori. ●

---

**Ahotsenea,  
sortzaileen  
gunea.  
Zertarako?  
Euskaraz sortzen  
duten musikari  
zein idazleei  
Durangoko  
Azokaren baitan  
heuren urteko  
lanak entzule eta  
irakurleei  
bertatik bertara  
aurkezteko.**